

# BAKEA GUGANDIK ERAIKITZEN

EGIA, JUSTIZIA, ERREPARAZIOA  
ETA BERRIRO EZ ERREPIKATZEKO BERMEA



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Azpeitia, 2016ko urriaren 14an eta 15ean.**

## **Taldekako hausnarketa.**

## **Jardunaldietako Hausnarketa taldeen kronika:**

‘Bakea gugandik eraikitzen’ jardunaldietako egun bakoitzean, egitarauaren bukaeran entzule eta parte-hartzaileek euren hausnarketak, sentimenak, bizipenak... elkartrukatzeko aukera izan zuten: kasu batzuetan, talde handian; besteetan, talde txikietan.

Jardunaldietako hitzaldi eta aurkezpenak lau gai-bloke nagusitan banatu ziren. Horiek inguruko hausnarketak bildu eta idatziz jasota uztearen garrantziak eraman gaitu kronika hau idaztera. Herritar gisa ere, bakoitzak aportatzeko duena delako egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez errepikatzeko bermearen zutabeetako bat.

### **A) NAZIOARTEKO EREDUAK**

Ipar Irlandako bake prozesua eta haren ertzak ekarri ziren jardunaldietara, zehazki. Amaia Alvarez Begiristain abokatuaren interbentzioa eta Xuban Intxausti zuzendariaren *In dialogue* dokumentalaren emanaldia aitzakia perfektuak izan ziren jendearen hausnarketak pizteko. Hona, Irlandaren kasu zehatzetik abiatuta, jendeak esandakoak:

#### Konparaketen arriskuak:

“Kontuz ibili behar dugu lurralde desberdinetako gatazkak konparatzerakoan. Besteek egin edo bizi izan dutenetik ikas dezakegun arren, ezin dira konparaketak egin”.

“Hartu behar dira ikasgaiak beste tokietatik, baina denboraren faktorea oso garrantzitsua eta aldagarria da, eta prozesuetan eragin sakona du”.

“Askotan esaten da alferrik begiratzen dugula kanpora, norberak ezagutzen duelako bere tokia. Baina beste tokietan pistak aurki daitezke, batez ere, zer ez egin ikusteko. Batzutan gure txilborrari gehiegi begiratzenn diogu. Ez gara bakarrak min hauekin, ea badaukagu zer ikasi beste tokietatik”.

“Asko ikasten da besteei entzuten. Asko ikasten da, norbere mundua zabaldua”

“Gatazka armatuen amaiera adosten ari direnean, ez da bukatzen gatazka politikoa. Hori gertatzen da Irlandan eta Euskal Herrian, momentu batzuetan”.

### Aitortzak:

“Publikoki gai hauei buruz hitz egiteko ohiturarik ez dugu”.

“Zein puntutaraino da batzuentzako baliagarriagoa besteentzako baino mahai batean hizketan aritzea? Eta onartzen dut denentzako zaila izan behar duela”.

“Irlandarekin alderatuta, hemen [Euskal Herrian] ez dago ez Guardia Zibilik ezta Polizia Nazionalik egin duena aitortu duenik”.

“Ez ditut imajinatzen anaia erail zuten bost Guardia Zibilak etxeko atea jo, barkamena eskatu eta gurekin eztabaidatzen. Espainiako estatuak ez du barkamena eskatuko. Hartuko al dute euren gain egindakoa?”

### Indibiduoaren esperientzia vs. gizarte osoarena:

“Kolektibo bat ezin da juzgatu pertsona baten deklarazioengatik”.

“Gaur-gaurkoz, Irlandan denek ezin dute hitz egin askatasun berdinarekin. Iraganaren pisua gainean daramate”.

### Tempusaren garrantzia:

“Etsaien arteko elkarrizketa Irlandan lortu da. Baina kudeatu behar izan dute denbora”

“Kontuan hartu behar da gizarte bakoitzak bere erritmoa duela eta Irlandan Biktimen Foroa sortzeko 11 urte pasa zituztela”.

“Berradiskidetzeko denbora behar da”.

“Erritmoak ez errespetatzeak gatazka mantentzea eta mina areagotzea ekarri dezake, bake prozesu batean”.

### AZPIMARRATUTAKO IDEIA:

“Berresten dut konparaezina dela lurraldeen arteko egoera. Ez bakarrik lurraldetasunarengatik, baita ere banakoengatik eta kolektiboengatik. Kolektibo bakoitzak erritmo bat du, eta aintzat hartu behar da. Gertakarien aurrean pertsonak dolua egin behar dute.

Zauriak itxi behar badira, bakoitzak ikusten du noiz eta nola, ahal duen...”

## **B) GAZTEAK**

Nola bizitzen dute gaur egungo euskal gazteek gatazka eta bakea? Adin tarte zehatz bati begira jarrita, hausnarketa eta sentsazio ezberdinak kaleratu ziren bildutakoaren artean.

### GIZARTE EREDUA:

“Gaur egungo gazteak beste kode etiko batean bizi dira beraz, ez dute gertatu zena gertutik edo azaletik bizi; normala da gatazka urrunekoa eta ezezaguna iruditzea”.

“60. hamarkadan berdina pasatzen zen. Bazegoen jendea politikan, baina ez gehiengoa. Gaur egun berdin.”

“Etika, historia eta antzeko ikasgaiak desagertzen ari dira eta orokorrean, gure gazteek, ez dute ardurarik gai hauen inguruan”.

“Egoera batean bizi zarete gazteak. Zer egin dugu familiok? Ahaztu nahi dugu eta horregatik hezi zaituztegu horrela? Zertan ibili gara gu, beldurrak?”.

### EZAGUTZA:

“Gure gizartean isiltasuna nagusitu izanak gazteek gertatutakoaren berri izatea mugatu al du?”.

“Gazteen ezagutzan aurreko belaunaldiek zein pisu edo garrantzia duten zehaztu beharko genuke. Zein da aurreko belaunaldien ardura? Eta guzti honek nola eragiten du bizitzen ari garen egoeran?”.

“Badirudi gazteak direla denaren errudunak. Baina zergatik daude etxeratuta gazteak? Zer egin dugu guk horrelako gazteak izateko?”.

“Esaten dugu gazteek ez dakitela deus, ez diotelako ezer kontatu etxean. Baina etxean kosta egiten da hitz egitea”.

“Transmisioaren zati handi bat eta informazioa desagertzeko arriskua dago, egia asko ahaztuta geratzekoa”.

### GATAZKAREN PERTZEPZIOA:

“Oso ezberdina da bizi duzun historia eta ez duzuna bizi”.

“Beste ‘klabe’ batzuetan bizi dugu gazteok gatazka”.

“Gazteak etorkizuneko heldu bezala ikusten dira bake prozesu honetan. Gazteak gazte bezala ikusi behar dira, ez dira instrumentalizatu behar etorkizuneko zerbait izango balira moduan. Prozesu honetan bisibilizatu egin behar dira”.

“Memoria gaur egungoa da eta bizia. Nahiz eta historia ezberdinak bizi izan ditugun, iraganaz hitz egin eta egia jakin behar da etorkizunean aurrerapausoak emateko eta gorrotorik gabeko errealitate berri bat sortzeko”.

### GORROTOAREN TRANSMISIOA:

“Egun oraindik gatazkak badirau, nola transmititu daiteke gorrotorik gabe? Zailtasun eta konplexutasun handia dago transmisio generazionaletan”.

“Batzuetan zaila izan liteke seme-alabei gorrotoa ez transmititzea”.

“Iraganari buruz ari gara hitz egiten, kasu askotan iraganean jarraitzen dugunean. Zer kontatu eta zer ez seme-alabei? Batzuetan, kontatu behar dira beldurrezko pelikulak: aita Granadan duelako preso, ama epaituko diotelako...”

“Gorrotoa hor dago bizitzea tokatu zaigunagatik, hala ere, seme-alabei beste zerbait transmititu nahi diet. Beste errealitate bat nahiko nuke hauentzat”.

“Iragana modu konstruktibo batean eraiki behar da, orain egiten dugunak etorkizunerako balio izango du”.

“Belaunaldi berriak oldartuko dira, ez gertatzearen bermea erabaki politikoetan oinarritzen ez bada”.

### AZPIMARRATUTAKO IDEIA:

“Gure erronka da nola ezagutu iragana eta aldi berean, etorkizuna nola eraiki. Nola transmititu gorrotorik gabe nahiz eta zailtasunak izan. Intergenerazionalitatea mantendu behar da, gizarte bateratu eta amnesiarik gabekoa bermatzeko. Gazteak hemen egotea garrantzitsua da”.

## **C) EMAKUMEAK eta GENERO IKUSPUNTUA**

Eredu patriarkalak bakearen eraikuntzan, gatazkaren eta egiaren narrazioan ere eragin du. Ikuspuntu bakarretik landu da duela ez asko arte hau guztia. Egia, erreparazioa,

justizia eta bakearen eraikuntza errealak izan daitezkeen, ezinbestekoa da eredu patriarkalak ahaztu dituen horiei guztiei protagonismoa eta ahotsa ematea.

### AHANZTURAK:

“Genero ikuspuntua: ehuneko zenbatek ulertzen du ikuspuntu hori emakumeena dela? Eta ez da generoa berdin emakumea. Generoa gizon-emakumeen konstrukzio sozialen desberdintasunen inguruan ari da. Ez dira emakumeak bakarrik ikertu behar eraikuntza horretan. Askok sentitzen dira eredu androzentristatik kanpo”.

“Emakumeek beti ibili gara mundu txikietan, umeak edo gurasoak zainduz... Rol horiek kontuan izan gabe kontakizunak ezin dira berdinak izan. Emakumea inplikatu da emozionalki, era humanizatuago batean... gatazkan. Emakume bakoitza da ‘0’ zona, eta bere zirkulua dauka”.

### ISILTASUNAK:

“Isiltasunak daude, eta gehienak emakumeenak dira”.

“Emakumeek, bake sozialarengatik, ixilik egon behar izan dute. Gaur egun ere, zer gertatu zitzaien esaten dute, baino ez zeinek egin zien”.

“Irlandan emakumeak heroi isilak izan omen dira. Hemengo gatazkan ere hortatik asko dago”.

“Oro har, emakumeengan genero kontzientziarik ez da egon. Ez zaie garrantziarik eman eta horrek autozentsura dakar. Emakumeei zuzenean beren egoeraz galdetu eta aitari buruz hitz egiten hasten dira. Baina zuri? Zuri zer gertatu zitzazun?”.

“Emakumeak ez dira beren bizitzaren protagonista direnaren kontziente”.

### AHALDUNTZEA:

“Erabakiak hartu behar dira, emakumeak ahalduntzeko pertsonalki eta kolektiboki”.

“Ikertzerakoan plano horizontalera jo behar da, eta hori lotzen dut generoarekin”.

“Biktimarioa ezkutatu da, bada garaia emakumeek hitz egiteko. Eraiki behar (edo nahi) badugu etorkizun hobea. Bakea ez da izango biolentziarik gabeko espazio bat ez baditugu beste gauza asko konpontzen”.

“Nola osatzen dugu memoria integratzailea? Bisibilizatu behar dugu estalia egon dena. ‘Frentean egon direnak’ ez da errepresio osoa. Non dago beste zatia? Umiliazioak; umezurtzak zaintzea; ilea moztea; neskame lanean jartzea... Klase kontzientzia eta genero kontzientzia: bietan jarrai”.

“36ko Gerran orain badakigu lehenengo eta bigarren lerroak daudela. Ez dugu hori nahi, beraz, txipa eta begirada eduki behar dugu ekarpen inportantea egiteko bake prozesuan: emakumeen begiradak hartzeko, ikuspegi feministatik; gauzak ea beste modu batera egiteko gai garen oraingoan. Asko daukagu konpontzeko: motxila, sustengu, sukaldari, sorbalda... izan dira emakume asko”.

“Memoriaren transmisioa emakumeek egiten dute, hobiak bisitatzera doazenak beraiek direlako. Gizonak lurpean daude. Historia emakumeek transmititzen dute”.

“Gero eta oroigarri eta ikerketa gehiago egiten ari dira emakumeenganako errepresioaren inguruan. Nafarroan, Sartagudan, hildakoei bisitatzera joaten ziren bi emakumeren omenez bi oroigarri jarri dituzte. Eta Peraltan, beste bat. Ideia positiboa da”.

“Jabetuta nago pertsonala politikoa dela. Pertsonala urte luzetan sukaldean geratu den kontakizun, esperientzia... izan da. Eta politikoa da”.

“Toki guztietara joan behar gara emakumeok eta espazio propioak lortu”.

“Emakumea bere espazioetan ahaldundu behar da, sozialki ahaldundu”.

“Emakumea beti egon da gizarteak eraikitako matrioskan, sukaldean, espaziorik ezkutuenean. Sinbolikoki ere horraino joan behar da”.

“Emakumeok aurrera jarraitu dugu ezkutuko sareengatik, publikoki ikusi ez direnak, konplize ezkutuekin. Hori gizartera estrapolatu behar da, beste funtzionamendu bat gizarteratzeko. Kontuan edukita orain arte ezkutuan egon direla, esaten dena bide berri bat irekitzea da”.

“Emakumeen esperientziaren bila sukaldara joan behar izatearen inguruan eta sare kontzeptuaren inguruan: Ba al dakigu emakume horiengana joaten?. Auzotik edo etxetik ez dira ateratzen, eta jartzen ditugun espazioak eta lekuak gizonezkoek sortutakoak dira: hiru ordu laurdenetan beren bizitza kontatzeko eskatzen diegu. Ni horrelako toki batean ez nintzake eroso sentituko, ez nuke jakingo publikoak – gizonek- nola erreakzionatuko luken, ez nuke erdiaren erdia ere kontatuko”.

“Gay eta lesbianen errepresioa kontatu behar dugu baita ere. “Besteak” deitu izan direnak kontzeptu patriarkalean ez ditugu ahaztu behar. Zenbat sufrimendu akumulatu dagoen...”.

“Gizonoi ere eraiki gaituzte; beste modu batera”.

“Egun, ikerketa eta formakuntzarako oso laguntza gutxi ematen da – ematekotan-. Lehenetsi beharko lituzkete emakumeen bizipenak, ikuspegi feministak kontuan hartzen dituztenak. Antolatuta beharko genuke horretarako”.

### GAUR EGUNGO EGOERA:

“Nire belaunaldiak beldurtuta jarraitzen du: kriminalizatuta, atxiloketek jarraitzen dute, indarkeriak jarraitzen du nahiz eta ETA ez egon. Hegemonia ezberdinak daude”.

“Niretzako gatazka politikoa ez da nazioarena bakarrik. Feminismoan lan handia egiten da hortik. Ez dago pistolarik, baina ez dago bakerik”.

“Orain arte *matxoalfa* ikuspuntua izan da konponbiderako bidea”.

“Rebiktimizazioaren kontzeptua indarrean dago: “gaixoa, bortxatu egin zuten” edo “gona motzarekin zihoan, berea da errua” gisako gauzak esaten ditugu oraindik. Sortzen al ditugu hitz egiteko modu bereziak?”.

“Nola bideratu dezakegu bake prozesua herrialde ezberdineko etorkinak, klase ezberdineko pertsonak eta genero desberberdinetakoak datozkigun gizarte berri honetan? Kolektibo zapalduak ahaldundu behar dira (emakumeak, homosexualak, ijitoak...)”.

“Historia bildu behar da eta memoria eraiki behar da. Baina zer ari gara galtzen bidean? Emakumeen istorioak, eta hainbat eta hainbat gizonenak ere bai...”.

“Politikoek generoaz hitz egiten dute, baina errealitatean zer dugu? Ikerketan, hiru bekatatik bakarra izaten da generoarekin lotuta dagoena. Lan prekarioa egiten dugu emakumeok. Ni beti nekatuta iristen naiz istorioak biltzera, dirua eskatzen ibiltzen naiz ingurukoei... Baliabideak esijitu behar ditugu”.

“Nazioarteak esaten du bake prozesuetan emakumeok presentzia izan behar dutela. Bestela, eredu androzentrikoa iraunarazten dugu”.



## AZPIMARRATUTAKO IDEIA:

“Emakumeok zer ekarpen egin dezakegu? Ez nago ados galderarekin. Zer dugu emakumeok diferentea “ekarpen bereziak” egiteko? Berdinak gara: pertsona garen heinean plaza publikoan egoteko askatasuna dugu, gizonek bezala. Eta punto”.

## **D) ORAINALDIA ETA ETORKIZUNA**

Iraganaz asko hitz egiten zen ‘Bakea gugandik eraikitzen jardunaldietan’. Baina, zer dugu orain? Eta nola bermatuko dugu berriz horrelakorik ez pasatzeko bermea duen etorkizun bat?

### GATAZKA ETA BAKEA:

“ Gatazka politikoak eta armatuak nahasten ditugu”.

“Gatazka politikoa eta gatazka armatua ez dira gauza bera. Beraz, ze bakeri buruz hitz egiten dugun argitu beharko genuke. Azken finean, armarik ezak ez du bakea esan nahi”.

“Oraindik bizirik dirau gatazkek.”

“Minak oraingoak dira, oraindik ez dira iragana”.

“Bakoitzak bere doktrina du, bere bizipenaren arabera. Nik nire bertsioa daukat eta gorrotoa ez transmititzea oso konplikatu da. Gatazka da dena”.

“Memoria historikoaren aferak badu *moda/tendentzia* zentzu bat, eta hausnarketa da: nola egin daiteke aktibo dagoen gatazka batekin memoria historikoa? Egin daiteke?”.

“Batzutan jurisdikzio internazionalera jo behar izan dugu eta jendearen testigantzak fortzatu behar izan dugu egia azaleratzeko. “Hobe ahaztu” diskurtsoa badago. Baina jendeak lekukotza emateko gogoia ere bai”.

“Testigantzetan egiak ateratzea kosta egiten da askotan”.

“Hipokresia asko dago. Historia ez zaio inori inporta. Eskiatzeko egunak noiz iritsiko itxoiten gaude”.

“Memoria daukagu, gehien bat indibiduala, baina kolektiboa ere bai, nahiz eta gizarte kontserbadore batean bizi garen” .

“Potoloena bakea da”.

“Bakegintzan ari gara, Euskal Herri berri bat sortzeko itxaropenarekin”.

“Nolako demokrazia nahi dugu? Ezagutzen al ditugu giza eskubideak? Badakigu zer diren? Demokraziaz hitz egitean, badakigu zertaz ari garen? Horrelako gauzak lantzen baditugu ez da gorrotoa elikatzeko, baizik etorkizuna gauzatzeko”.

### IRAGANA-ORAINA-ETORKIZUNAREN ARTEKO LOTURA:

“Ez gertatzearen bermea ezin liteke mantendu gertatutakoa ahazten badugu eta minaren ateak ongi ixten ez badira”.

“Iraganaz ari garenean ez dakit kontuan ditugun erritmo ezberdinak daudela: doluak, integrazio prozesuak... Hau kontuan ez badugu minak ekarri ditzake”.

“Kontziente naiz denbora behar dugula oraindik Euskal Herrian gatazkaz lasai hitz egiteko. Oraindik ezin da hitz egin bizitutako guztiaz”.

“Oroimen aktiboa praktikatu behar da, bestela ahanzturan geldituko da gertatutako guztia”.

“Historia urruna eta aseptikoa izan daiteke, baina beharrezkoa da”.

“Iragana modu konstruktiboan begiratu daiteke”.

“Frankismoa bukatu zenetik begira zenbat zauri dauden sendatu gabe”.

“Bakoitzaren egiak eta egia kolektiboak daude (datu objetiboekin), eta transmisioa beharrezkoa da, dakigunean instituzioek estali egin nahi dutela. Alemaniak barkamena eskatu du eta naziak epaitzen ari dira. Galtzaileak izan zirelako egin dute. Horrek adierazten du frankismoa ez dela sekula galtzaile izan eta oraindik ondorioak sufritzen ari garela”.

“80. hamarkada hasieran gizarte zibilaren eta militarren arteko harremana oso gatazkatsua izan zen: ETA; GAL; administrazio publikoa... Baina erakunde eta eragileek erabaki zuten kooperazioa hastea eta eredu berri horizontalago bat sortzea politikarako. 20 urteko epea jarri zuten instituzioek elkar ulertzeko, konfiantza sortzeko. Horrek ahalbidetu du kontsentsu sozial potente bat sortzea, bakegintzan eta instituzioetan. Pentsa daiteke Hego Euskal Herrian,

Pptik ezker abertzalera, denak ados egotea estatus politikoaren inguruan? Duela 20 urte pentsaezina zen”.

“Iraganaren eta orainaren arteko lotura bat egin behar da. Iraganean gertatu dena ondo ezagutzea eta kontuan izatea beharrezkoa da etorkizun demokratiko bat sortzeko. Ongi diagnostikatzen badugu iragana eta ongi ulertzen badugu zer gertatzen ari den orain, ongi eraikiko dugu etorkizuna”.

“Iragana etorkizunarekin lotu behar dugu”.

“Iraganaz, iraganaz eta iraganaz ari gara. Baina ni eta nire ahizpak bizirik gaude. Iragana gara? Eta zer da iragana? Kultura demokratiko eza. Ez badugu hausnarketa gizarteratzen, ez badugu iragana gaurkotasunarekin lotzen eta ez badugu kultura demokratiko bat bultzatzen, alferrik ari gara”.

“Garrantzitsua da iraganari erreparatzea, etorkizunari begira. Ez iraganean enkistatzeko, baizik etorkizuna eraikitzeko. Kuestio intergenerazionala hor dago. Gurasoek sufritu badute bi jarrera daude: 1) gorrotoa sentitzea egin diotenarengatik 2) seme-alabengan pentsatzea eta haientzat beste errealitate bat nahi izatea.”

“Iraganaren eta etorkizunaren arteko lotura intergenerazionala egiten bada, posible da gizarte kohesionatu eta ez-amnesiko bat egitea. Gure seme-alaben etorkizunean pentsatu behar dugu”.

“Iragana ez da han geratu. Iraganeko haziak oraingo uzta dira. Eta orain egiten duguna etorkizuna sortzeko izango da”.

### ETORKIZUNA ERAIKITZEN (Aukerak eta mehatxuak):

“Ongi bereizi behar dira Memoria eta Historia: Iraganera begiratzea garrantzitsua da etorkizuna eraiki ahal izateko. Modu eraikitzailean begiratu behar da iraganera etorkizun oparoa eraiki ahal izateko”.

“Historiak ez du garrantzirik gizartean. Ingeniaritza ikasten dute denek. Nola eskatu gizarte horri eseri eta hitz egiteko?”

“Oroimen indibiduala eta kolektiboa landu behar dira. Memoria indibidual bakoitza entzun, hausnartu eta modu ezberdinetara errepresentatzen ikasi. Bereizi behar dira “nire” memoria eta “kolektiboa”. Memoriak sentimendua eta bizipena du. Gauzak transmititzeko ezinbestekoa da, bai memoria pertsonala zein kolektiboa. Kontua da nola uztartu biak”.

“Zentratzen gara produktuetan, eta testigantzak horri begira daude. Zaintzaren kultura eta egiturak behar dira. Formatu egin behar gara horretan”.

“Kontakizunaren partea kontakizunaren artea da”.

“Denbora behar da, baina ez da nahikoa. Denborak zauriak baretzen ditu baina ez ditu sendatzen. Badago tentazioa denborak dena berez konponduko duela pentsatzekoa, baina funtsezkoa ez du konpontzen”.

“Uste dut arinegi hitz egiten dugula gatazkak zuzen-zuzenean norbere sukaldean bizi izan ez dugunok”.

“Prozesuaren erritmoak ez errespetatzeak prozesua etetea dakar eta doluak bere denbora ez izatea. 5 urte pasatu dira borroka armatua bukatu zenetik, eta badago tentazioa denborak dena berez konponduko duela pentsatzekoa eta funtsezkoa ez du konpontzen. Eta gutxitan gertatzen da. Batez ere horrelako gatazka odoltsu eta luzeetan”.

“Gobernantza berriak sortu behar dira eta erlazionatzeko bide ezberdinak”.

“Konfiantza lortzeko metodologia praktikoa jarri behar da martxan”.

“Egia eta justiziaren aldeko lanak interdiziplinarra izan behar dut. Plano horizontal batean, denok zirkulu berean egin behar dugu lan”.

“Adostasunak eraikuntza dira”.

“Gizarte zibilak prozesua bultzatu dezake, baina prozesua osatzeko Estatuak beharrezkoa da. Alde batetik, boterea duelako eta bestetik, informazioa duelako”.

“Alderdi politiko batzuk eroso sentitzen dira iraganean eta instrumentalizatu egiten dute”.

“Akordio politikoek lagunduko dute aurrera egiten. Jendea prest dago eta gizarteak ere bai, beraz egin dezagun aurrera”.

“Akordio politikoek ez badute laguntzen eta minaren ateak ez badira ixten, oso oker geratuko dira horrelako ariketak eta horrek tristura sortzen dit”.

“Legea txarra izanda ere, instituzioek badituzte zenbait kompetentzia eta eman daitezke pausoak”.

“Garrantzitsua da eztabaida irekitzea eta presioa egitea instituzioei”.

“Orain arte egindakoa errepikatzen badugu, toki berera eramango gaitu. Eta toki berri batera joan nahi dugu.”

“Instituzioek egia emateko gutxienez lagunduko balute...”.

“Gatazka gainditzeko eta bakea eraikitzeko, etsaiek euren artean bakoitzaren egiak aurpegiratu beharko dituzte. Baina lasaitasunez eta besteen egiak ulertu behar izanez. Zein momentutan iritsiko garen horretara jakitea zaila da”.

“Baliabideak pentsatu behar ditugu: juridikoak, terapeutikoak... Profesionalentzako espazioak ahal dela”.

#### **AZPIMARRATUTAKO IDEIA:**

“Gizarte zibilak prozesua bultzatu dezake eta, modu kolektibo eta indibidualean ere bultzatu daiteke. Orain egiten ari garena -hitz egitea-, nolabait, justizia trantsizionala da”.

Goiatz Labandibar Arbelaitz